

**GAURKO GURE NEKAZARITZAREN
ARAZOEN INGURUAN**

Aspaldiko adiskide dudana Aita Patxi Uribarren azken hilabeteotan atzetik eduki dut zirikatzen "Karmel"en nekazaritzari buruz zeozer idatz dezadan. Proposatu dit lehenengoz nekazaritzaren ikuspegi orokorra egitea, osteko artikulua batzuetan sektorez sektoreko azterketa egiteko; ala, ostantzean, Bizkaiko EHNEi arestian izan dugun III. Kongresuan onartutako enburpena azaltzea, geroagoko artikuluetan atalez atal edo joateko. Ez dut egingo, hain zuzen, ez bata ez bestea, baina bai onartzen dut honako artikulua hau beste zenbaitzuen atari izatea hala nahi bada. Sektorekako analisia ez zait gustatzen, nire ustez ez duelako oraingo nekazaritzaren arazoaren dimensio egokia azaltzen. Gaurko nekazaritzaren arazoaren mamia kontzeptuala da, ez sektoriala. Bestetik, gure Kongresuan onartutako ildo estrategikoak agertzeak aurreuposatzen du mami kontzeptual hura apur bat ezagutzea, bestela ez ulertzeko, edo txarto ulertzeko, arriskua dagoela uste dut. Esate baterako, idatzi banu ildo estrategiko horietarik nagusia luraren bindikazioa dela, irakurle askok ez zuen sinestuko (ulertuko) Chiapaseko, eta, orokorki, hirugarren munduko nekazarien problemarik handiena den luraren gabetasuna hementxe ere nekazaritzaren problemarik handiena denik. Halaxe da, ostera, gure aburuz behintzat, eta horrek exigitzen du nahikoa atzera egitea, gaia oinarri-oinarrietatik aurkezteko. Barka beza irakurleak atzera gehiegi jotzea bada, baina behar-beharrezkoa delakoan nago.

Nekazaritza, sektore ekonomikoa

Nekazaritza sektore ekonomikoa bat da. Beraz, gainontzeko sektore ekonomikoekin partekatzen ditu ezaugarri batzuk, guztiak sistema ekonomiko baten atalak baitira. Eta zeintzuk dira indarrean dagoen sistema ekonomikoaren ezaugarri nagusiak? Bata globalizazioa da. Gaur egun harreman ekonomikoak oro, estatuen mugetatik salto eginez mundu mailan gertatzen dira. Kapital finantziarioa mundu mailan antolatua dago. Pisua duten enpresak transnazionalak edo multinazionalak dira. Merkataritza-harremanak edo elkartrukeak Munduko Merkataritza Erakundeak (lehenagoko GATT) arautzen ditu. Merkatu bakar bat dago eta (jaungoikoaren gisara-edo) bera nahikoa omen. Ez dugu Jaungoikoa alferrik aipatu, bigarren ezaugarria Merkatu bakar hori ahalguztiduna izatea da-ta. Merkatuaren legea da lege bakarra, eta lege horri askatasunaren legea ere deitzen zaio: Merkatuan den-denok arau berdinekin (beraz "libreki") jokatzeko gaude. Baina kontua da Merkatu horretako guztiok ez daudela kondizio berdinetan. Eta ez da oso buru argia edukitzea behar berehalakonturatzeko inondik inorako askatasunik ez dagoela predikatu hartan, abiatze-baldintza ezberdin-ezberdinetan dauden guztiak joko-arau berberak ezartaraztea ez delako berdintasuna, bentajan dagoenaren alde jokatzeko baino, eta horri nekez dei geniezaiok "askatasuna", batez ere kontuan hartuz hasieratik desbentajan dauden egoeraren sortzaileak, hain zuzen ere, bentajan daudenak direla. Ba holakoxea da dugun sistema ekonomikoaren "askatasuna". "Konpetitibitatea" da sasi-askatasun hori ilustratzen duen hitz magikoa. Asuntua lehiatzea da baina inportanteena ez da lehiatzea, irabaztea baino. Galtzen baduzu guztiz eta guztia galduko duzu, baina, lasai, konpetitiboa ez zarela izango da. Eta zeri buruzkoa da, ba, lehia? Merkatura nori ateratu produktu bat produkzio-kosturik gutxienean eta diru etekinik handiengan. Lehia "libre" honetan ia dena da zilegi (ez den-dena, noski, nahiz eta batzuk hori ere nahiko luketen). Begira dezagun, esate baterako, nola lortu duten Asiako "Dragoiek" (Hego Korea eta beste zenbait

herri) konpetitibo izatea, lehiakide irabazleen txaloen artean: esklabutza hurbil duten lan-baldintzak aplikatuaz. Baina hori guztia gutxienezkoa da, produkzio-kostuak murrizteko lasterke-ta eroan ingurugiroari egiten zaion bueltaezinezko kaltea gutxienezkoa den bezala. Ondorio larrienen aurrean irabazleek disimulatu egingo dute (batzuetan hori ere ez) edo Urliari botako djote errua, Merkatuaren Legetzarra Grabitatearen Legea bezain ezinbesteko zeozer omen da-ta.

Nekazaritza "konpetitiboa" eta agroalimentazioaren katea

Goazen orain ikustera nolakoa den halako baldintza "ederrretan" mundu mailan praktikatzen den nekazaritza "konpetitiboa". "Konpetitiboaz" bakarrik arituko gara, noski, bestea lehiaren galtzaile ezdeusa baino ez delako. Merkatuaren Legea desafiatzen ez duen Nekazaritza irabazleak "kontzentrazioa" eta "intensifikazioa" ditu ezaugarri lehenak. Ustiategiak bildu edo "kontzentratu" egiten dira produkzio-unitate handi-handiak sortzeko (txikiak bidetik hilda geratzen dira). Produkzio-unitate (ustiategitar) horiek monolaborantza egiten dute (eremu geografiko zabal-zabaletan produktu bakarrean dihardute). Produkziobide intentsiboak erabiltzen dira, teknologia aldaera handi batekin (mekanizazio handia energia asko gastatuaz, fitosanitario eta nitratoen erabilera larregizkoa, hazkorraldi arruntan errespeturik eza, landareen zein azienden manipulazio genetikoa...). Baina gauza ez da hemen amaitzen. Ustiategitar haiek produktu inportatu asko erabili beharrean dauden bitartean, Merkatura aterako duten produktua eszedentaria izango da askotan. Produktu horren soberakinak hirugarren munduko herrietara joango dira. Herri hauek soberakinok hartzera derrigortuak egongo dira, euren lurak bestelako monolaboreetan erabiltzen direlako; kanpoko zorra ordaintzeko erabili beharko duten esportaziorako produktuen monolaboreetan, alegia. Honez gain, deskribatutako ereduaren deskalabruzko ondorioen zerrenda luzea bezain larria da: lurren agorketa, uren kutsadura, produktuen dibertsitatearen galera, base-

rritarren lanpostuen galera, monolaborantzak sortutako izurriak, manipulazio genetikoak eta aziendek elikagai hutsengatik sorturiko gaixoak (oroit Britainia Handiko behi eroen kontua), eta abar.

Badago nekazaritza "irabazle" honen beste ezaugarri garrantziko bat: Nekazaritza izateari emeki-emeki uzten ari izatea. Munduko sistema ekonomikoan dagoeneko ez da ia esistitzen nekazaritza sektore bat. Gero eta gehiago "nekazaritza-elikadura" sektore aurpegi bikoizdunaz mintzatzen da. Derrigor mintzatu ere. Gero eta galduago dago gizakiak elikagaiak sortzeko arduratzen zen Lehen Sektore hura. Haren ondoan "Agroindustria" dago, hots, alde batetik lehengaiak merkatuan jangai bihurtu arteko transformazio eta distribuzioaren industriak, eta, bestetik nekazaritzak kontsumitzen dituen "input"ak (haziak, pentsuak,...) produzitzen dituzten industriak. "Agroalimentazioaren Katea" deitzen zaio honi, eta kate honetan pisu gutxien duena (gero ta gutxiago, gainera) nekazaria da.

Nekazaritza Euskal Herrian

Aurreko bi ataletan esandako guztia gogoan eduki behar da bertoko nekazaritzaren arazoa kontestu egokian ulertzeko. Has gaitzen, esaterako, utzi dugun azken puntutik, hau da, agroalimentazioaren katearen kontu horretatik. Batzuei sinestea kostako zaien arren, gaurko baserritarra gero eta gutxiago da langile autonomo bat produkziobide batzuen jabe izanda eta produkziobide horien antolamendu autonomo bat martxan jarrita, kontsumorako produktuak (jangaiak) merkaturatzen dituena. Horren orde, agroalimentazioaren katearen peoi gisa agertzen ari da gero eta argiroago. Pcoitza haren adierazpen muturrekoa "Integrazioaren sistema" da. Adibide batekin ikusiko dugu zer den hau: Abeltzain batek zekor gizenduak produkzitzen ditu, baina kontratu bat egin du agroindustria batekin. Agroindustria horrek erabakitzen du ganaduak zer jan behar duen eta aukeratutako pentsua hornitzen dio ustiategiari. Ze-

korrak hazita daudenean pentsuaren hornitzaile izan den agroindustria berbera (edo harekin lotua dagoen bar) ardura-tzen da produktu guzti-guztia erosten ustezko baserritarrari, al-dez aurretik negoziatua duten prezioen sistema baten bidez. Formalki (Segurantzaz Sozialaz eta abar) baserritar hura betiko baserritar autonomo baten moduan egongo da gehienetan, baina argi dago sakonean oso gauza ezberdina dela. Kontuz gero! "Integrazio" deitu dugun sistema hau gero eta presentea-go dugu Euskal Herrian ere, batez ere produktu jakin batzuen kasuan, eta, dudarik gabe, sistema ekonomikoaren joera oro-kor bat dugu hau. Batzuetan integrazioaren sistema kamuflatua edo itxuraldatua azalduko da, baina azken finean gauza bera izanda. Gehienetan ere halako ustiategi "integratueta" erabili-ko den produkzio-sistema oso intentsiboa izaten da "konpeti-tu" ahal izateko (jarri dugun adibidean, ganadua beti kortan eta pentsu hutsa jaten, belarrik batere ez).

"Integrazioa"ren gehiegikerietara heldu barik (baina bertan jausteko arriskua eta joera ahaztu barik ere), Euskal Herriko baserritar gehien-gehienak menpekotasun irzelean daude. Menpekotasunean "input"en aldetik (pentsuak, ongariak, fito-sanitarioak,...), "input" horiek ordaintzeko finantziabidearen aldetik, eta subentzio edo dirulaguntzen aldetik ere. Dirulagun-tzak ematea da gurean praktikatzen den nekazaritza-politika bakarra, eta dirulaguntzek askotan ezkutatu egiten dituzte ba-serrien galerak. Kasu batzuetan dirulaguntzek suposatzen dute baserritarraren diru-sarrera guztien ehuneko hirurogeita hama-rra. Nekazariaren produkzioa gero eta gutxiago dago pagatua. Baina, zergatik subentzionatu behar da, hain neurri handian, gainera? eta zergatik hala eginik ere, oraindino ari dira errenta-garritasuna galtzen gure baserriak? Erantzuna simple-simplea da: Merkatu bakarreko nekazaritza "konpetitibo"aren irabazleek nekazari produktuen prezioen gainbeheraldia erakartzen dute. Prezioen beherakadari erantzuteko gurean errezeta bakarra aplikatzen da: produkzioa gehiagotzea. Produkzio emendatze-ko, noski, zorrak ere emendatu behar dira, eta baita menpeko-

tasuna ere.... Eta hala gabilta deabruen espiral ulergaitz batean jiraka. Kontu guztia omen da ez garela konpetitiboak. Eta konpetitibitatearen sasi-jainkoa bera zalantzan jartzen hasi beharrea, gu ere konpetitibo izateko lehiatzera behartzen gaituzte. Eredu bakarra konpetitibitatearena da. Konpetitiboa izan edo hilt! Baina nork inposatzen du gurean eredu bakar hori? Alde batetik botere ekonomikoak dira inposatzaile, noski, baina hemengo botere politikoa dute laguntzaile. Gure Administrazioak, esan bezala, subentzioekin bakarrik erantzuten du, eta produkzioaren gehiagotze ta konzentratze aholkuekin, hots, gure hondamendiaren galeraren erantzunkizuna dutenen moduan joka dezagula da aurkezten zaigun bide bakarra. Nekazaritza kudeaketarako zentro ofizialek horixe aholkatzen dute: larrialditik irteteko behi gehiago erosi eta esne gehiago ekoiztu; intentsifikatuz, jakina, eta kanpoko instantzien menpekotasuna guztiz handituz. Ez dizute esango, esate baterako, agian lur gehiago erabiliaz kanpoko produktuen menpekotasuna gutxitzea lortuko duzunik, errentagarritasuna handituz. Ez. Hori lurraren problemari ikutzea izango litzateke, baina hori ez omen dago gure esku (?).....

Uste dut aurreko lerroak nahikoa direla hemengo nekazari-tzaren arazoan gako nagusiak ulertzeko eta, honenbestez, hurrengoren batean zehaztasunetan sartzen hasteko. Frogatuko zenuen dagoeneko, irakurle, ez naizela neutrala. Ez, ez naiz neutrala, behargin eta militante naukan EHNE erakunde neutrala ez den bezalaxe. Baina halako sistema zoro, ez-bidezko eta kaltezkoro ondorioz beteriko baten aurrean neutraltasuna azaldu nahi izatea konplizitate hutsa da nire ustez. Guk ez dugu nekazaritza konpetitiboaren konplize izan nahi. Nekazaritza konpetitiboaren aurrean "Nekazaritza soziala" oposatu nahi dugu. Oraindik gogorik gelditzen bazaizu (eta baten bati eginiko eskaintzaz damutzen ez bazaio), agian, laster edukiko dugu aukera nekazaritza sozial horretaz apur bat aritzeko. Ordurarte bai!

Jabier Erize